



*Nola idatzi behar dira **bio**, **psiko**, **sozio** eta halako osagaiak beste hitz bati lotzean: marrarekin ala marrarik gabe ?*

bio**psiko****sozio****teknologia****motrizitate****ekonomiko**



Aurrizkien tankerakoak dira *bio*, *psiko*, *sozio* eta halako osagaiak; ez dira osagai beregainak. Ondoren datorren hitzari ñabardura semantiko bat gehitu eta hitz berri bat sortzen dute. Lotuta eta marrarik gabe idaztekoak dira.

bioteknologia
psikomotrizitate
sozioekonomiko



Lehengo hitzak maileguak dira; ortografia eta ahoskera egokituta, kanpoko hitza osorik aldatzen da euskarara. Zenbaitetan, hala ere, mailegu hibridoak sor daitezke. Halakoak ere lotuta eta marrarik gabe idaztekoak dira:

bioadierazle
biometatzaile
psikoeritasun

Hiztegi Batuan jasoak daude halako zenbait forma.

BIO

biodegradagarri *izond.*
biogeografia
biogeografiko
biokimika
biokimiko
biomasa *iz. Biol.*
bioteknologia
biozenosi *iz. Biol.*

PSIKO

psikoanalisi
psikoanalista
psikoanalitiko *izond.*
psikolinguista
psikolinguistika
psikomotor *izond.*
psikomotrizitate *iz.*

SOZIO

sozioekonomiko *izond.*
soziokultural
soziolinguista
soziolinguistika
soziolinguistiko
soziopolitiko *izond.*



«Euskalterm Terminologia Banku Publikoa»-ren datu-basean ere halako hitz ugari jaso dira, *Hiztegi Batuko* formez gainera. Hona termino normalizatu eta gomendatu batzuk:

BIO

biobanku
biobihurketa
biodibertsitate
biodiesel
[inpedantzia] bioelektriko

bioenergia
bioetika[-batzorde]
[ziklo] biogeokimiko
Biohanditze
biomaluta

[arkitektura] bioklimatiko
[ikerketa] biomediko
biometanizazio
bioprotesi
biorreaktore
biorremediatze

OHARRA

Euskalterm-en Terminologia Batzordeak ponderazio-markak finkatu ditu terminoen fidagarritasuna adierazteko. Ponderazio-marka altuenei erreparatu diegu hurrengo diapositibetako terminoak aukeratzeko. Honako marka hauek, hain zuzen: 4 eta 4EU

“4 - Behin-behinean normalizatua/gomendatua (Terminologia Batzordearen onespeneren zain) “

“4EU - Termino normalizatua/gomendatua. “



PSIKO

[segmentazio] psikografiko
[gaitasun] psikofisiologiko
[nortasun] psikoinfantil
[gaitasun] psikomotorrak
[nortasun] psikoneurotiko

psikoonkologia
[nortasun] psikopatiko
[alterazio] psikosomatiko
[arreta] psikosozial
psikosindrome [organiko]

SOZIO

sozioekonomia
[arreta] soziojuridiko
[nortasun] soziopatiko

[laguntza] soziosanitario
sozioterminologia



Horrelako aurrizki bat baino gehiago kateatzen direnean, nola idatzi behar dira hitzak?

Esaterako, aurrizkiok batzean:

bio + psiko
bio + geo
psiko + sozio
psiko + neuro



Berdin: lotuta eta marrarik gabe.

biogeokimiko

biopsikosozial

psikosoziolinguistika

psikoneuroendokrinologia



Zenbaitetan, ordea, nahasi egiten dira *biogeografiko*, *psikoanalitiko* edo *soziopolitiko* moduko izenondoak eta *tekniko-zientifiko* moduko hitz-elkarketak. Desberdindu ditzagun:

1

Esan bezala, *bio*, *psiko*, *sozio* eta halako osagaiak ez dira elementu beregainak. Honako sintagma hauetako izenondoak, esaterako, ezin dira zatitu:

barrera biogeografiko > **barrera bio eta geografiko*
ikuspegi psikoanalitiko > **ikuspegi psiko eta geografiko*
aldaketa soziopolitiko > **aldaketa sozio eta politiko*

Biok, *psikok*, eta *soziok* hitz bati lotuta joan behar dute.



2

Adjektiboak dira **tekniko** eta **zientifiko** hitzak. Koordinazio-elkartea dela salatzen digu marrak: **zuri-gorri** moduko adjektibo-elkarketa, hain zuzen.

Testu tekniko-zientifiko › Testu tekniko eta zientifiko

Psikosi maniako-depresibo › Psikosi maniako eta depresibo

Interes politiko-ekonomiko › Interes politiko eta ekonomiko

Halako hitz-elkartek marrarekin idaztekoak dira, Euskaltzaindiak 25. arauan xedatu bezala.